

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Inp. B. Euzkoak 2. Añeta 27. 48101

29 Zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

60 pta.

1989. martxo



JUAN SAN MARTIN

Azkeneko asteetan komunikabide guzietan agertu den pertsona ekarki dugu oraingoan gure orrialdeetara: bere izena eta imajina ezagunak dira hainbat eta hainbat tokitan. Puntalean barrena askotan pasiatzen duelako, azkenean mutiko batek teletelastan ikusi eta izen berri batekin bataiatu du: *Bira, atxa: Puntaleko gizona!*

Euskal Komunitate Autonomoko lehenbiziko Arartekoa dugu JUAN SAN MARTIN, Eibarren jaioa 1922an, Hondarribira etorria orain dela urte mordoak, besteak beste Hondarribia aldiakariaren kolaboratzaile aberatsa eta ugaria, blagan ariztera gonbidatu dugu.

Berak egindako lanen zerrenda egiten hasi ezkerre, gure aldiakariaren ale berezi bat baino gehiago beharko genukeela ez dago dudarik: Euskaltzaindian, Eusko Ikaskuntzan, RSBAP-en, Arantzadi Elkartearen... hori, ordea, besterik dagokio; guk berri, gizon honen alde bat besterik ez dugu jorrituko: Juan San Martín eta Hondarribia, harreman hori hemendik horrarako ez dela-koan bait gaude.

(6. orrialderak)

"TERMINE PATAT" GURE OLINPIADENTZAT AURTENGOZ

Bueno, dagoeneko amaitu aurtengo II Herri Olinpiadak. Atzean gelditu dira hamai-ka bat izerdi eta giro ederreko momentuak. Eguraldia ere ederki portatu da gurekin aurtengoan, olinpiada tropikalak ziruditen.

Bertan parte hartu dutenen aipamena egin beharra dago, ez bait da txantxetakoak 32 ekipotatik bi ezik beste gustiek proba guzietan parte hartzea. Aupa ekipoi!

Aurtengoan, dudarik gabe, inauterietako parodia izan da arrakasta handiena edukitu duen proba, batez ere ikuslegoarentzat. San Pedro kaleko tabladoaren gainean ikusi genuen xaitxa eta martxa gutxiitan ikusi dugu inon. Han agertu ziren munduko artista famatuenetakoak: Simon eta Garfunkel, Mikel Jackson, Xabier Gurrutxaga eta bere orkestra, Afrikako beltz talde bat, Indiatik etorritako "Hare Krissnak", Nureyev-en dantza taldea...

Artista berriak ere agertu ziren, eta erakutsi zuten laster fama ederra hartuko dutenak gainera. Epaimahaia zorrotz aritu zen, eta merezimendu guztiz, "Ttanti

falta"-ko neskei eman zieten lehenengo postua.

Azken asteburuko egitaraua hau izan zen:

Ostiralean.

Mus txapelketako bost finalisten arteko proba. Finala Limako eta TTipi-ttaparen artean jokatu zen, azkeneko hauek irabaziz.

Larunbatean.

Saski baloiko finala, joan den urteko bi lehenengoen artean: TTipi-ttapa eta Bankonabon. TTipi-ttapa irabazi zuen juxtu-juxtu, puntu batez. Ekipo hauek erakutsitako maila teknikoak ikustekoak zen. Esan digutenez, batez edo bestek, Estatu Batuetako saskibaloi profesional ligara joateko tentazioa omen du.

Futboleko finala ere jokatu zen, Alaxka ta Baxka eta TTipi-ttapa-ren artean. 6 eta 4ko emaitza irabazi zuen TTipi-ttapa, makina bat izerdi bota eta gero.

Igandean.

Golzean goliz, jai egun batean beñala



tueltien dardarrekuen esnatu ginen: iritsia zen Olinpiaden azkeneko eguna!

Bazkal aurretik bentako atarian jo eta ke aritu ziren gure tokalariak, trebeak benetan.

Jarraian eta jaia girotzeko, Maltzeta harrabiko trikitalariak jo eta ke aritu ziren giroa berotzen.

Ordu bietan, antolatua zegoen bezala, Olinpiadetan parte hartu duten ekipo eta bertan esku bat bota dutenak bildu ginen bazkaldu eta jai baten bidez amaiera ospatzeko. Seirehun bat lagun ginen bentan giro alaienean. Ez genuen ahaztu, momentu berezi hartan, galdutako gure lagun Gor-ka, eta bere oroienez isilatasun momentu bat izan genuen.

Bazkariaren amaieran bertso saio galanta entzun ahal izan genuen, horretarako klasifikatu ziren hamaiketik esker. Han bildu ziren: Muñoz, Zubillaga, Larzabal, Ponce, Mariskal, Alkain, etab.

Aurtengo rebelazioa J. Inazio Duinat (Gornutz baserrikoa) izan genuen, Errexua taldekoka, bertsolari bikaina benetan. Hona berak botatako pare bat:

Hemen elkartu gaitu
gaurko bazkariak
gaizkiak alaitzeko
Olinpiadak jarriak
beste hainbat merezi du
gure Hondarribiak.
Nire partetik dizuet
ondo etorriak.

Hainbat neska eta mutilak du
gaurko honetan hartu parte
gaurko bazkari honetan
zuek ondo portatu zarete
Hondarribian bizi gerade
ez gara bizi aparte
Nire partetik agur bero bat
berriro ikusi arte.

Hainbeste jenderen artean, kafrearen bat agertu zen eta txorakeriaren bat ere egin beharra, zer okurritu eta komunak txehetu. Homendik eskernik beroenak Kofradiaren laguntzagatik eta une berean barkamena puntu beltz horregatik.



Bentatik atera eta gero San Pedro kalean jarraitu zuen juergak, baita kirolak ere. Enteratu garenez Iker Txiki 315 kilotako harria jaso zuen (hau ez zuten homologatu, baina erne egon dadila Inaki Perurena). Entzierruak astuekin, jotak, bertsoak... Ikusten denez, denetik gertatu zen arratsen.

Olinpiada honen balantze modura esan dezakegu alde batetik, bertan parte hartu dutenak anaitasun eta kiroltasun giroak ederrena lortu dutela, koadrila arteko laguntasun bikain baterantz, eta bestetik herria giro alaitu batez bete duela negu honetako aste bukaeretan.

Ekipo bakoitzak berte tamainan eta karaktere berezia emanaz hartu du parte Olinpiada honetan.

Lehen postuetan bakarrak ez da xaltxa egosi, bakoitzak eduki du bere "pike" eta xaltxa: nesken hiru ekipoen artean, Zurbeltz, Erreuxa eta Zinbawio artekoa, Trebeña eta Kalamartza, Bart ze lo ona eta R.I.A., Ekipo Lokal eta Xinmirikoak, etab...

Lehen postuetan joan den urteko errebantxa zegoen, Bankonabo eta TTi-tpaparen artean, baina hauen artean Alaxka ta Baxka ere sartu zen. Hala eta guztiz ederkir nagusitu da aurtengoan TTi-tpa, nahiko probetan irabaziz. Aipatzekoa ekipo honetako pibota, Juanjo (jusez hau da N.B.A.-ra joango dena).

Jendea prestatzen hasia da dagoeneko heldu den urterako Aupal

Agur modura, eskerrak Olinpiada hau aurrera eramaten lagundu duten guztiei.

Heldu den urtean gehiago eta hobeto!

IKER BILABA

Argazkiak: Imanol Garmendia

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

- ♦ Martxoak 20 - 26: Mayi
- ♦ Martxoak 27 - Apirilak 2: Iraola
- ♦ Apirilak 3 - 9: Erauskin
- 10 - 16: Mayi
- 17 - 23: Iraola
- 24 - 30: Erauskin

- ♦ Mayi, Alm. Alonso Kalean - 642191
- ♦ Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
- ♦ Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

- ♦ Martxoak 24: Garmendia
- 26: Martinez
- 27: Arratibel
- ♦ Apirilak: 2: Garmendia
- 9: Martinez
- 16: Arratibel
- 23: Garmendia
- 30: Martinez
- ♦ Arratibel, Zubieta Kalean - 641975
- ♦ Garmendia, Santiago Kalean - 641136
- ♦ Martinez, Kale Nagusia - 641212



JUAN AJURIAGERRA HONDARRIBIAN

Juan Ajuriagerra noizean behin etortzen zen Hondarribira.

Herritik pasatu zen klandestinitateko hondarren ibi debekatuen gainetik jauzi bat egitera, eta bertalaldean errefuxiatasun egon zenean honuntz etortzeko beste hainbeste-tan ere. Eginbeharrak edo batzarak non, Ajuriagerra bertan? Halere ez zen inoiz Aste Santuko patxadan etorri.

Haatik, honeratu zen batean esan zidana:

"Aizu, nire bi arrebeekin Ostegun eta Ostiral Santuko elizkizunak ezagutzera etortzeko topa ote neuke hemen etxebizitzarik?"

Eta, halaxe, herriko lagun on batzuek esker, Rosario, Marina eta Juaneke 1973go Pazko egun bi hauek herren pasa zituzten. Oraindik franquistismoak zutik zirauen, eta beste hiru urtez eutsiko oraindik, baina Juanen borrokek ere bai: Franco, azkenean, 1975go azaroan hil zen; handik ia hiru urtera, 1978go abuztuan, jada ziztazigun Juan, baina bitartean zaren gero bihurtik diputatu aukeratua izan eta Madrilen Euskaleriaren eskubideak herriaren izenean borrokatzeko bidea.

Bestalde, ez zuen jaio berria zen Euskal Kontseilu orokorra edo Consejo General Vasco haren buru Carlos Garaikoetxea (1979ko ekaina) ikusteko astirik izan.

Hau gerta baino urtebete eskas lehenago hil baitzen.

Juan Ajuriagerrak gizon lehorra zirudien, eta hitz gutxiakoa zen egiatan. Injeneritzak utzi zion bere zuzentasun eta zentzu karriatu hura, agian; agerian non nahi sumatzen zitzaion jitea. Esate baterako kotxea sartu eta gerrikoa jarri zen zuen beti, ez orain, orain hogei urte berik; bestalde, aradak bete behar ziren berriz ez zuen moztu kotxea hura zetoarren etxeko inguruan zuten; Hondarribiako kasuan, gehientan, herriko sarreran, Concha edo Alvarez Quinte-ro hotelen inguruan.

Bere idortasunari bagozpozki, ez zen hainbesteakoa.

Juanen izaera gai delatuzan dut gerra garaiko lekukotasun bat.

Artikulu hau idazten ari naizen une berean, beste gizon ezagun baten biografia ari naiz idazten: Lezo Urreztietarena; gizon ausarta itsasgizona iaioa, honek sartu zituen Bilbora gerra garaian geure burua defendatzeko izan genituen arma-untziak. Ajuriagerra hil zen urte berean, 1978an, baina geroago, azaroan, eta handik Hondarribian bertan, jaso zizkion zintan Lezori bere bizitzako abenturak, eta behar nahi diren-koak. Bilbo inguruak eta abertzaleak zirenez gero, galde egin nion eta Juan Ajuriagerraz zer zioen.

Eta hara niri esandako hitzak:

"Bilboko egun zailetan haserretu nintzen neu bikura berezi baitaen Eli Gallaste-

giri egin zizkieten kritikengatik, eta bero-bero nire lagun eta alderdikidea defendatzen ari nintzela, eta ni neuz nigar egiteraino jarriat; Juan Ajuria hurbildu zitzaidan, eta esan zidan nirekin patxadan hitzegi nahi zuela. Hurrengo egunean juan nintzaion bere bulegora, eskatu bezala. Bilboko azken hilabeteko egun estu bat zen, eta goizeko bederatzietan sartu eta hamaika terdiak arte egon ginen elkarrekin; eta gero, bazkaria tarteko, ordubietatik gaueko ia hamabitan irten nintzen handik.

"Eta esan zidan Juaneke, nik Eli Gallastegiz esandakoak asko erakutsi ziola, ez zuela horrelakorik uste izan, eta gero Eli berarekin harrituko zuela hizketan, Yagi-ko bestaldekin Juan bera, Carlos Solano eta Inaki Urzeta entzule zituela.

"Erregiatan Juaneke ez zuen ezagutzen Jagi-en historia.

"Gizatasun eta sentimendu handiko gizon apertu zitzaidan".


"Oso ezberdina zen bi gizonak: bata, kanpalekin eginda bezalako lerro zuzena zen, eta bestea, berriz, zharra kontrabandean egiten zituenak zuzenak zirela uste borobila zuena; biak abertzale porrokatuak, Aberriaren alde lan asko eginak.

Eta biak fededunak, bakoitza bere kabuz.

Martin Ugalde

ERLOJU BERRIA PARROKIAN

Otsailaren 10ean erloju berria jarri ziguten parrokiako kanpandorrean, plataforma bat zintzilik zeukan jirafa itxurako grua lepoluze baten laguntzaz. Harrezkero herriko edozein lekutatik entzuten dugu orduaren dei elektronikoa, gauez nahiz egunez, denboraren lasterrak ez digula itxoiten laurdenero gogoratzen digularik. Orduaria Teknikronos etxeak jarri du eta Alemaniatik bidalitako irrati seinale batek eraginda funtzionatzen omen du. Seinale hori Donostiara iristen omen da eta handik ordenagailu batek bidaltzen omen du Hondarribira eta beste hainbat tokitara. Ventasko koartelera adibidez. Argiak huts egin duela edo gelditzen baldin bada, ez dio axolarik, berriro ibiltzen hastean behar duen segunduan ekiten baitio. Hemendik egun batzuetara ordu aldaketa datorrenean ere bera bakanik moldatuko omen da behar duenean ibiltzeko. Aurreko erlojuarekin berriz, ordu-bete behar izaten omen zuten astero kuertak emateko, eskuz igo behar bait zen pisua. Denbora, ordea, ez da alferrik pasatzeko...



AXALEKO ETA BARNEKO ALDAKETAK

Bizi garen mendeaz zerbait azpimarratu behar bagenu honen aldakortasuna aipatu nuke nik. Froga bat Hondarribiko Aste Santuan izan diren aldaketak ditugu, eta festa hauen axaleko agerpenetan gertatuak baino areago gizonaren pentsakeran gertatutakoak.

Gure ume garaietako Aste Santuak eta Garizumak ez didate halako oroitx xamurrik ekartzen. Guztiak halako kolore ubelez jaxten zen, barau gogorrek batetik, Jainko zorrotz eta beldugaria bestetik, behin eta berrin, egiazen egia gizonaren jardunak lantzen zuelarik.

Garizumako igandeek eskaintzen zuten berexitasun bakarra semoi luze huraiek ziren, askotan goregiak eta bertsikuluategiak herri xumearentzat. Hauxe izaten ziren baserritarrek eta arrantzaleek sermoi haieztaz agertzen zuten balorazioa: "Joni! Anitu duk? Eerra sermoia! Hamabi aldiz jo dik okabilakin pulpittua. Eerra sermoia...!". Ostiral Santuko goizeko sermoian berdin: "Etzukun sermoi ona, ezlik esan ollarrak hiru kukurruku kantatu zittula...".

Ostegun eta ostiral santuz ateratzen zen prozesioa izugarriko kandel ziriokien laguntzen zuten gizonak, baina oraindik ez dut konprenditu sergatik andreak eraman behar izaten zituzten elizaraino ziri lodia eta luze huraiek. Lotsa? Matxismoa? Behar bada.



(E. Aizua)

Gertakari huraiek bixitari ingles eta frantses asko ekartzen zituzten. Hauetako askok batez igarotzen zuten muga eta batzuei balkoiak ere alokatzen zitzaizkien sos batzuen truk. Prozesioa bukatu ondoren ahal zuenak eta kapotar askok lanpernak jaten zituzten, egun berexi horretan sagardolegiak gainekia bete-betean zeudela.

Hasieran, denbora gutxiaren buruan izan den aldaketa aipatu dut, axalekoa hurrenbestekoa izan ez bada ere. Honen agiri garbia Hondarribian oraindik ere urtero egiten den prozesioa dugu, oso fede onez bertatik zintzilikatzen den kristau mordoakarekin. Aldaketa handiena, askorengan elizkuzunetarako gertatu den axaloea izan da. Hala ere, bada beste kristau multzo bat askatasun eta ikasi nahia lantzen zuten beste aldatu dena. Beraiei doazkio nere esker onenak Aste Santuaren inguruan sortzen diren zarata, loiklore eta interes guziren azpian egiazko eskaintza eta esan nahia aurkitzen lagundu didatelako: gizona, alegia, berak nahi badu, itxaropen eta maitasunean bizi daitekeela.

Lourdes Zubeldia

DEMOGRAFIA

JAIOTZAK

Otsaila

- 5an: JON Urkia Estonba
Gurasoak: Luis eta Josefa.
6an: HAIZEA Gojenola Beltran
Gurasoak: Joseba eta Julia.
7an: AMAIA Gama Arbelaz
Gurasoak: Gonzalo eta Gema.
9an: AINHOA Alonso Blanco
Gurasoak: Francisco eta Ana
9an: MARIO Frances Andrade
Gurasoak: Alejandro eta Cristina.
11an: NAIARA Zubillaga Correderra
Gurasoak: Jose Ramon eta Victoria.
15an: ANA Arriaran Iglesias
Gurasoak: Jose Ramon eta M.^a Angeles.
17an: ANE Iriazabal Valle
Gurasoak: Gorka eta Ana Isabel.
21ean: GARAZI Maritxalar Goni
Gurasoak: Juan Jose eta M.^a Arantzazu.

Martxo

- 5an: GARAZI Zabala Martinez
Gurasoak: Matias eta M.^a Cocepcion.
6an: MARTZEL Domingo Agirebengoa
Gurasoak: Jose eta M.^a Arantzazu.

EZKONTZAK

A Abendua

- 3an: Salbador Etxebeste Martinez, Hondarribikoa eta Luisa Larrate Feal, Hondarribikoa.
Otsaila
14an: John David Shima, Estatu Batuetan jaioa eta Cecilia Maria Vazquez Estatu Batuetan jaioa.
24an: Juan Pablo Garcia Magriña, Donostiakoa eta Miren Josune Lopez Zubeldia, Hondarribikoa.

Martxo

- 4an: Jose Luis Etulain Narbarte, Irungoa eta Concepcion Aristondo Lekuna, Hondarribikoa.
4an: Alberto Grazenean Etxegoien, Irungoa eta M.^a Arantzazu Olaziregi Salaberria, Hondarribikoa.

HERIOTZAK

Otsaila

- 3an: Juana Aranzasti Olasagasti
4an: M.^a Rosario Olaskoaga Treku 71 urtekoa
Errazkin-enea Baserrria.
5an: Guillermo Etxeberria Olasagasti 75 urtekoa
Kale Nagusia 32.
6an: Magdalena Ugarte Etxegarai
6an: M.^a Dolores Kanpandegi Aranzasti
13an: Graciola Barbalena Mendica Soroeta-Gain.
15an: Francisco Bergara Ariztegi 63 urtekoa
Kosta Auzoa 33
16an: Veronica Jauregi Bengoetxea
San Grabieli Egoitza.
24an: Juana Olasagasti Agirre.

Martxo

- 1an: Francisca Ordoki Aldaia 91 urtekoa Alai-Txoko Etxea.
2an: M.^a Teresa Aginagalde Arozena 82 urtekoa
San Grabieli Egoitza.
6an: Marta Lopez Reborado 13 urtekoa Katalin Erauso Kalea.
7an: Angel Nufez Navas, 57 urtekoa San Pedro Kalea 11.

ASTE SANTUA

Udaberriko illargi beteak bere aurpegi borobilari argi zabalez betekirik eskainiko digunaren atari atarian argitaratuko den "HONDARRIBIA" ALDIZKARIAN? Aste Santuari buruz bi edo hiru jakingai aipatzea egoki deritzait.

Azken urte hauetan eguntalako astindua eman zaio Hondarririan ospatzen den Aste Santuari aldizkarietan eta irratietan. Gipuzkoan zehar zutik geratzen diren bi IBILDEUN bakarrak, gure herria eta Seguran gordetzen direla haizetaratuz.

Gauza guztiak dute beren egia, eta honek ere ba du. Egia da, Hondarririko herriak haundikiro ospatzen duela Aste Santuko jaiak; aste honi mami maikoa zaizkion beste elizkizun Nagusien ondoan, leku berezita daramala, kaleetan zehar egiten den ibildeunak. Gipuzkoako eta beste lurraldeetako jendeak ehunka inguratzeko zaizkigula. Ostiral Santu egunean, hemengo ospakizunak ikustera eta ospakizun hoiek sortzen duten inguru-giroa ahogozatzera.

Gauza berdintsua gertatuko dela uste dut Seguran ere.

Hala ere, herri mordo bat da Gipuzkoa barnean, Ostiral Santuz Nekaldi-Prozesioa egiteko ohituran sendo eusten zaiona.

Dena dela, guk geurea maite dugu, maite-min sakonez maite ere, —zerbaitegatik dugu geurea—, eta ahalik egokien gauzak burutzen saiatzen da bertako jendea.

Gertakizun hau antolatzeko erabiltzen diren gauzen artean, hasieran aipatutako jakingari izpi batzuk hauetxet izan litezke:

—1.602. urtean hasia izan behar du, agiriak diotenez, Jesusen irudia gurutzetik erasteko elizkizuna.

—Gurutzetik erasteko erabiltzen den zurzko irudia, 1.777. urtean, erregalo bezala eman zion gure elizari Fray Jeronimo de Estella lekaideak. Ez dakigu, —nik behintzat ez dakit—, nundikakoa zukeen gizon honek Hondarririarikoa maite-lotura. Orduz geroztik, irudiarekin batera erregalatu zuen gurutze begiragarria erabiltzen ditugu Ostiral Santu arratsaldeko elizkizunean.

Gauregungo egoerari begiratu, hauxe deritzait aipatu beharrekoa. Urteen eragi-

nez, zaharkitua aurkitzen dira, ibildeun edo prozesioan erabiltzen diren Santuen irudiak. Harritzekoa ere bada, osorik nola iraun duten.

Jakin dugunez, irudi hoiak oin-lekuak, orain berrogei urte eginak dira. Ikusi ez bagenu, sinistu ere ez genuen sinistuko: piruizko zuretxe guztia, oro osorik pipiak jan-
da agertu dira oin-leku hoietako bi; berri berriak egin ditugu; itxuraz berdintsu agertuko badira ere, jakin beza Hondarririko herriak, berrixe sakon bat daramatela Santuen oin-eusgarriak.

—Jesus hillaren zurzko gorputz-irudia jasotzen duen zerraldia edo hil-ontzia ere, guztiz matxuratua agertzen zen. Egun-zati ugari puskatuak eta bere margo-azala guztiz itxuragaldia.

Esku trebeek lana egin dute, eta guztiz berriua geratu da. Zahar-itzura gorde egin zaio, eta azal guztia berria duelarik ere, antziak egituraren tankera berekin darama. Guztiz ederra eta bikaia agertuko da gure begietan hilotzi hau, Hondarririko kaleetan zehar, herriko lau giza seme sendoen bizkarrean ibiliko denean.

Eta azkeneko jakingai hauxe da: Nekeetako Amaren irudia eta Jesus hillaren irudia daraman hilkutxa gordetzen den elizeko ezkeraldeko aldea, arrisku handian aurkitzen zela. Pareteak hamarren bat zentimetro aurreratua zegoen, noiz baino noliz eroriko.

Zurgin treben eskuei esker, honi ere bere onera erakarrian izan da. Aurtengo elizkizunetan, beraz, zahar-berritutako pusko asko agertuko zaigu, Ostiral Santuz bater ere.

Ospakizun ospetsuen edertasunerako izan dadila guzti hau nahi genuke. Eta Aste Santuak bere gailur Nagusia Pazko egunez duenez geroztik, bixoa nere PAZKO-ZORIONIK berocina Hondarriritar guztientzat. Etxean daudenentzat eta, batipar, etxetik kanpo, erbestean, heritxetean eta espe-
treetan daudenentzat. Guzti hoiak alde zuzenduko dugu Aste Santu honetako gure oitotza. PAZKO ZORIONTSUA GUZTIOI!

Martin Iturbe

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNEN ORDUAK

ERRAMU EGUNA PARROKIAN

Goizeko 10,15-etan:
Erramu-bedeinkatzea. Ibildeuna.

Goizeko 10,00-etan:
Meza Nagusia Parrokian.

Arratsaldeko 6-etan:
Errosarioa, Gurutz-bidea (Euzkeraz)
Ondoren: Meza (Bietara).

ASTELEHEN SANTUA PORTUKO ELIZAN

Arratsaldeko 7-etan:
Penitentzi elizkizuna GAZTEENTZAT
Ederaz.

Arratsaldeko 7,30-tan:
Penitentzi-elizkizuna GAZTEENTZAT Euskeraz.

ASTEARTE SATUA PORTUKO ELIZAN:

Arratsaldeko 4-etan:
Penitentzi-elizkizuna EUSKERAZ

Arratsaldeko 8-etan:
Penitentzi-elizkizuna EUSKERAZ

ASTEAZKEN SANTUA:

Arratsaldeko 4-etan:
Penitentzi-elizkizuna ERDARAZ
PORTUAN

Arratsaldeko 8-etan:
Penitentzi elizkizuna ERDARAZ PARROKIAN

OSTEGUN SANTUA:

Arratsaldeko 6-etan:
Umeekiko elizkizuna PORTUAN, bi
hizkuntzatara.

Arratsaldeko 8-etan:
Elizkizun Nagusia Parrokian, bi hizkuntzatara.

OHARRA:

Arratsaldeko 5-etan meza bat eman-
go da portuan, EUSKERAZ.

OSTRAL SANTUA:

Goizeko 10-etan:

Gurutz-Bidea, Parrokian, EUSKE-
RAZ

Goizeko 12-etan:
UMEENTZAT: Jaunaren heriotzaren
ospakizuna, Portuan, (bietara).

Arratsaldeko 5-etan:
Elizkizun Nagusia Parrokian. (Bietara). Gurutzetik erastea Ibildeuna.

LARUNBAT SANTUA:

Arratsaldeko 6-etan:
Pazko-ospakizuna UMEENTZAT,
Portuan. (Bietara).

Arratsaldeko 8-etan:
Pazko-elizkizuna eta Meza Nagusia
Parrokian. (Bietara)

PAZKO IGANDEA:

Goizeko 10-etan:
Gudari Erromatarren erortzea. Tio-
para eta ibildununa Elizan.

Goizeko 10,30-etan:
Meza Nagusia Parrokian. Bietara.



Blagan

JUAN SAN MARTIN

Hondarribiko mendiak, bideak, zokoak, baserriak, etxeak... pixkanaka arakatuz, miatuz joan da bere begi bizi urdinekin. Eta bere begiratzearen arrastoa nonahi ageri zaigu.

Gure partetik besterik ez: Juanitori, eskerrik beroekin batera, bene-benetako zorionak; irakurleei, gure herriaren berri ikasiz dastatu nahi badute Juanitoren esanak arretaz irakurtzeko.

—H: Noiz etorria zara Hondarririba?

—JSM: Orain sei urte t'erd. Donostiara egunero joan behar nintzen, Eibar urrutit egiten zitzaizkidan. Aspertuta, bada, azkenean hona jo nuen. Nere buruari esan nion: Eibarko gizarte giroa galdutako behar badut, kopensatzeko, gutxienez paisajeko hobe bat beharko dut... perder el paisanaje pero ganar el paisaje esan ohi da. Esatera bat besterik ez. Hemen ere paisanaje ona dagoela uste dut.

—H: Etorri ez-ezik, harreman estua ere lortu duzu Hondarriribarekin...

—JSM: Bai, bai. Bueno, nere erara. Txiki-keo giroa ez zait gustatu izan, Eibarra ere oso independente izan naiz eta hemen ere hala naiz. Jende asko ezagutzen dut eta gero eta gehiago ari naiz ezagutzen... Etoritzeko prestatzen hasi nintzenean ilusioa neukan hemengo bi lagunekin elkarriketak eta egiteko: Bat Bordinari zen. Etorri eta laster hil zen. Zenbait aldiz bistatu nuen. Besteak, Iruñen, anai Berriotxoak. Ondo konpontzen ginen elkarrekin. Baina, hona etorri baino lehentxoago hil zen. Neretako penagarria izan da.

Bestela, idazleok aislatuta bizi gara. Gure bizitza alde batetik gogorra da, bakarrik egin behar duzu lana. Bakardade hori idazle guztientza da.


Bestela, Martin Ugalde ere lagun handia dut... Gainera, bakaritzak bere lan ordu bereziak izaten ditutu...

Harreman gehienak artista munduarekin izaten ditut. Hemen bizi diren artistekin izaten ditut elkarriketak. Batez ere, erakusketak irekitzen dituztenean.

Gero, arrantzaile gutxi batzuk ezagutzen ditut. Uste dut batzutan aspertuta egongo direla nere galderekin, nola ez daukadan itsasoko bizitzaren idearik... Ohiturak eta galdetzen dizkiet.

—H: Mendealere ez bazarela badakigu, inguru hauetan barrera ibilia zara...

—JSM: Etorri nintzenean, lehenengo ne-
gutik hasi nintzen Guadalupea kotxez igo eta handik bizkarrez bizkar Jaizkibelera. Itsasaldeko parte hori oso interesantea iruditzen zitzaizkidan, zeuden zelaiak eta orden-
kengatik hori Neolitiko garaian bizitza handia izango zela. Eta horrela hasi nintzen.



(LITUQUET)

Jaitsi nintzen lehenengo egunean aztar-nategi batzuk aurkitu nituen, eta gero ez naiz gelditu: hemezortzi tokitan aurkitu ditut lehen gizonaren aztarnak.

—H: Eta noizkoak izan daitezkeen ere badakizu?

—JSM: Bai, bai. Desberdinak daude. Itsasoko nibeletik ehun eta berrogei edo berrogeitamar metroko alturretan neolitikoak aurkitu ditut, eta harri-aro ondokoak, artzaintza, abeltzaintza girokoak.

Baina itsas ertzean harri-aroak aurkitu ditut. Harri-aroak azken partekoak ez-ezik, erdikoak ere bai. Parte zaharrene-
takoak seguru behintzat musteriense dira, orain dela berrogei ta bost mila urtekoak.

Horiek dira seguruena zahartzat emateko.

Horien katalogazioa Jesus Altunak egin zidan. Jesus Altuna bi aldiz ibili da nerekin ikusten eta berak eman zidan musterien-setzat. Haren orientazioak eta katalogoetan errepasatu dut hobeto, eta garai desberdi-
nen zehaztasuna egiten saiatu naiz.

Eta badut arrasto bat —zalanztza dut, baina badut— Harri aroko lehen parteare-
na: abxelense, eskuko aizkora bat. Nere ustez aurkitu dudana zaharrena. Ez dakit se-
guru atxelense den, ordukoa ez bada, Harri Aroko erdi aldikoa izango da, baina segu-
ruena lehenengo partekoa.

—H: Eta nola egiten dituzu azterketak?

—JSM: Ez dut behin ere azterketarik egin lurrean, eurik agertzen dituenak har-
tzen ditut bakarrik, baina hauek ematen di-
gute pista non egin behar den azterketa.

Hendaian ere badut beste aztarnategi bat. Kaxakada bat eraman dut Euskal Mu-

seora eta beste batzuk Aranzadira erama-
teko ditut, baina oraindik memoria bukatu
nahi dut. Horretarako, ordea, problemak
izan ditut toponimiarekin. Inguru horretan
ez da inol bizi, eremu bat da. Zaharrek ere
lehen ere horrela zela diote, irizetara, be-
laretara joan izan direla, baina bizi inol ez
dela hor bizi izan, artzainak...

Horregatik leku izenak falta zaizkit eta
ez baditut ondo jartzen bizitza guztira gaiz-
ki jarriak izango dira.

TOPONIMIA

—H: Toponimia dela eta, zure Hondarri-
biako artikuluetan maiz aipatu izan dituzu
izen jatorren arazoa, baserrien arazoak di-
rela eta, adibidez. Nola moldatu zara ho-
rren berri ikasteko?

—JSM: XVIII. mendetik etxe guztien fi-
txak eginak ditut: XVIII.ean, XIX.ean, pa-
droiekin, Gipuzkoako momentklorarekin,
eta orain nola erabiltzen diren ere bai. Eta
eboluzio bat ikusten da. Gehienak baditut
XVIII.ean ere, ez denak.

Batzutan ikusten da izena aldatu egin-
dela, beste batzuetan izena eboluzionatu
egin dela eta desfiguraturik gelditu dela.
Harrigarria bada ere, Erdi Arotik datozen
zenbait izenek berdin-berdin jarraitzen dute
aldatu gabe, eta geroago agertzen direnek
aldakuntza handiak izan dituzte.

Izenik zaharrenek aldakuntza txikiena
izan dute; esate baterako, Artzu eta Kai-
kuegi, horiek ez dute aldakuntzarik izan,
eta Erdi Aroan daude erregistraturik. Baina
Garaikoetxea batzuetan agertzen da Goi-
koetxea. Basarri bera baina eskribaua zein
izan den gora-beheran jarri du Garaikoet-
xea edo Goikoetxea.

-H: Eta Artzu?

-JSM: Artzu dela eta, Serapio Mujika hemen egon zen artxibero eta esaten zuen Artzu eta Justiz bakarrik ezagutzen zirela Euskal Herrian. Hori ez da egia, Justiz neurri batez bai, baina Artzu ez, euskal literaturaren baten agertzen da Artzu alegileia eta Baxenafarroan eta Zuberoan badaude Artzuak. Harritsuak izango da.

Justiz, berriz, bai, Justiz izango da seguruenik jatorrena. Sufijo horiek, -itz eta -otz, oso korrientak dira Akitaniako partean, Gaskoinan. Eta Justiz hori da Martitz den bezala. Izen horiek Erdi Aroko patronimikoak dira. Justus eta Martis (Marte) izenetatik datozenak.

-H: Bai, eta Kaikuegi?

-JSM: Kaikuegiaren kasuan, -egi hori forma zaharrean etxea da. Eta -egi eta -etxe sartzen direnean ez dago -nea-rik.

Gainera forma zaharrean -nea agertzen da, inoiz -enea agertzen bada ere. Hori XVIII. mendearen erdi aldera arte ez da agertzen. Izan zaharretan, XVII. mendean eta, ez dago -eneanik. Hori Zuberoa, Baxenabarretik eta Baztanetik etorri den korriente bat da. Idaztea, behintzat, behar bada ahoz erabiliko zen.

Peñafloredaren zentsuan, adibidez, ez dira agertzen, eta XVIII. mendearen bukaera da. Baina XIX. ean bai; lotuta agertzen da. Horrek mugatze bat ematen du, garai bakoitzean ze alderio ematen den, hori da baliozkoa. Ofizioa eta tituluen publikatu nuen Hondarribian: Batxillerenea, Bixkundi, e.a. aipatuz.

HIRIGINTZA

-H: Zer diotzu Hondarribiko hirigintzaren nortasunaz?

-JSM: Pena ematen dit hain interes gutxi ikustek kasko zaharri buruz. Beste leku batzuetan egin den bezala, etxe zahar horiek recuperatu ezinik ez dago. Neurriak hartu behar dira, ekonomiak ere hala eskatzen du.

-H: Nola ikusten duzu Manzano Monisen proiektua?

-JSM: Manzano Monisen proiektua ez zait batera gustatzen, hori egitea baino hobea zen zeharo modernoa egitea. Bide horrek konfusioa sortzen du. Datorren turistak pentsatzen du hori dela parte zaharra. Distorsio bat egiten du historian.

Hori Gipuzkoako plazan badaude erro-maniko eta dituzten soportalak, erro-maniko eta gainera ez Euskal Herrikoa. Badirudi jaun horrek Disneylandia bat egin nahi izan duela Hondarribian.

Parte Zaharra behar bezala recuperatu beharrean, erortzen utzi da eta berria egitean bertakoa ez dena egin. Hori faltsua da, pastitxe bat da. Saritua izan dela... Horrek niri ez dit ezer esaten.

-H: Eta Murruarekin gertatu dena?

-JSM: Murru hori ez da berez erori. Eta inor ez dute preso sartu. Holako fenomeno gertatzen da edozein nazio normalean eta baten batek pagatu behar ditu kontsekuentziak.

Hori da transizioaren ondoren guk patri-monioko gauzak behar bezala orientatu ez ditugulako. Guk ondare bat dugu, gurea adina gure ondokoena dena, eta errespeta-tu behar dugu. Hizkuntzan bezala, monu-mentuak ere eta gure historia eta testigan-tzia emango duten agiriak beharluak gaurde ondorengotzat uztera. Gu ez gara horren jabe, gure belaunaldia bakarrik ez da ho-ren jabe. Eta kontzientia bat mantendu behar duzu.

-H: Eta zergatik gertatzen da hori?

-JSM: Ez dut esango abertzaletasun falta denik; ignorantzia da, hobea ez dena. Gure herriak bere nortasuna gorde behar du. Guk autonomia bat izateko arrazoa baldin badugu, herri bezala nortasun bat daukagula da. Nortasun hori zerk ematen digu? Gure kultura bereziak, hasi hizkuntzatik, ohituretatik eta beste gauza askorengatik. Beste gauza askoren artean parte handi bat gure hirigintzako arkitektu-rak gordetzen du.

Horrekin batera doa artearen kontzep-



Juan San Martin Jazubergo zaharrik erakusten.

zio guztia, plastika guztia. Hori gure aurrekoek egin dute eta horiek mantendu beharrezkoak dira gure herrietasuna mantentzeko. Kostatu egiten dela? Baina kostatu arren hori da prezioa autonomia bat izango badugu, gure buruaren jabetza izango badugu, hori da arrazoa. Eta hor oinarritu behar gara.

Ondare guztia borraratzen dugun neurrian geure herria borraratzen dugu, eta gure herria borraratzen den neurrian gure eskubideak galtzen doaz. Eta horren kontzientzia izan behar dugu. Falta da, eta nik pena hartzen dut, ze hau herri-eredu izan daiteke. Turismoa fomentatzeko ere modu bat da. Eta gero bizi eman. Bai udaleteak, bai Diputazioak eskubideak dituzte inpestu kon-tuan legea egitea beren esku dute. Posible da horiei inpestuak kendu eta erratzasun-ak eman gauza batzuetarako, eta Kasko Zaharri bizi eman. Pena ematen dit da-raman bideak.

Bueno, azkenean piska bat meyoratu egin da.

ARARTEKO

-H: Eta orain Ararteko izendatu zaitzute...

-JSM: Bai, gure euskaraz esango genuke: orain artekoak egin dizkiagu, eta orain hara artekoak egin behar.

-H: Eta hori nola egingo duzu, Hondarribian ala Gasteizen bizi zarela?

-JSM: Ez dakit. Prueba egitera noa egunero joan eta egunero etorri, pentsatzen dudalako kotoean harutz eta honutz noan bitarte hori izango dela aislatua ikusi-ko naizen momentua, telefono gabe eta inor gabe, eta orduan nere planak, egune-ro lanarenak eta meditazioak egiteko okasio ona izango dudala.

Lehenengoan behintzat ikaragarritzko abalantxa izango dut. Gero, nekatu egiten banaiz, astea han pasatu eta ostiralean etorri, ikusiko dut...

-H: Animatua zaude lanerako?

-JSM: Ni bai, animatuta nago. Arrazoa ekipoa ondo egitea da, ekipoa aztertzen baldin badut... Nere reto nagusia hori da.

Azertatuko dut? Ez dakit.

Ahalik eta batuen egon behar dugu ekipoa. Horrek ematen dit kezka. Bulegoak euskalduna izan behar du. Gure artean izango diren harreman guztiak euskaraz. Gero, datorrenari, datorren bezala, euskaldunari euskaraz, erdaldunari erdaraz. Erdaraz ohitzen baldin bagara, datorren euskaldunak ere erdaraz egingo digu. Eta gu euskaraz ohitzen baldin bagara eta ondo tratatu erdaraz datorrena ere, hizkuntzagatik diferentziarik egin gabe, hurbiltze bat, kariño bat hartzea lortuko dugula uste dut. Delikatua izango da. Etimiko dira protestak, baita ere euskararen kontra, aldekoak baino gehiago seguru asko.

Gehienak behar bezala kanalizatu ez diren gauzak izango dira.

Administrazioa bere ustez ez da ondo portatzen, ez dio kasorik egiten, baina bera ere ez da joan bide zuzenetik, e.a. Hori ere lagundu egin behar zaio.

**Tx. SAGARTZAZU
L. A. LETAMENDIA**

ESKOLAZ ESKOLA

SAN JOSE IKASTETXEA

BOBI

Ze pozik egongo nintzateke etze batean haurtxo bati janaria ematen eta esne beroko dutxa batekin!

Hemen, denda honetan, beste biberioekin ongi nago, baina Esmeralda, nere lagun nik maitagarriena, eraman zutenetik oso triste aurkitzen naiz. Dendan sartzen diren emakumeak eta jende guztiak gure sabelatxoak ukitzen digute eta, berriro, uzten gaituzte trasto bat izango bagina bezala.

Hara, ze neska politak hartu nauen! Ja, ja, ze kilimak egiten ari zaizkidan nere sabelatxoan. Dendariarengana hurbiltzen da, eta:

Neska: -Zenbat balio du biberoi potxolo honek?

Dendaria: -Zortzirehun eta berrogetamar pezeta.

Neska: -Ongi, jar ezazu. Fredi, nere seme txikiarentzat da.

Dendaria: -Tori.

Neska: -Eskerrik asko. Agur.

Dendaria: -Gero Arto.

Ze iluna dagoen! Bere boltsan sartu nauela uste dut nere alboan "Dodotis" eta umeen jantziak daudelako. Badirudi iritsi garela, argia ikusten dut, neska politak berriro hartu eta mahai gainean utzi nau.

Zer egin behar du? Jostoratze batez zutala behar dit nere sabelatxo. Ezzz, ai... zutala naul eta orain, zer egiten ari da? Ura berotzen ari da eta nere sabelatxo sartu



behar du! Ezzz, ai... Dena pasa da, ze beroa pasa dudana hor barruan.

Oi! Begira ze haurtxo polita! Neska politak Fredi esan duela iruditu zait. Ze izen polita! Neska esne beroa botatzen ari zait, ze ongi aurkitzen naizen orain. Oi, ze marria! Haurtxoaren ahoari hurbiltzen ari natzala, ja, ja!

Haurtxoak ez du hortzik eta ez dit minik egiten.

Hemendik aurrera zoriontsuagoa izango naizela iruditzen zait, baina ez dakit zer egingo dudana Esmeralda gabe.

Oi! Beste emakume bat sartu da sukaldetan eta eskuan Esmeralda du...!

Bobbi: -Esmeralda, Esmeralda!

Esmeralda: -Non zaude, Bobi?

Bobbi: -Hemen nago, Frediren ahoan.

Esmeralda: -Nere nagusia beti etortzen da zurea bisitatzea eta, horrela, egunero elkar ikusiko dugu.

Bobbi: -Orain bai zoriontsu biziko naizela! ("Biberolek ere badute zoriontsu bizitzeko eskubidea. Ez?").

AINHONA ARBELAIZ
(O.H.O. 8)

RODOLFO, UNTXI BEREZIA

Euskal Herriko herri menditsu batetan, orain dela urte ugari, zen Rodolfo izeneko untxia.

Rodolfo ez zen erabat normala, honi porrusalda, arraultzak, pastelak eta abar gustatzen bait zitzaizkion.

Bere etxea buztinez egina zegoen eta bertan sukalde, logela eta komunak aurkeztzen ziren.

Egun lainotsu batetan erosketak egitera zahoanean lau urtetako haur bat aurkitu zuen, bakarrik eta negarrez zegoen.

Rodolfo honela esan zion:

- Zer duzu mutiko?

Mutilak ez zekien zer esan baina bere espainak pixkana-pixkana ireki zituen eta malkoen artean esan zion:

- Galdut naiz eta ez dakit nere etxerako bidea.

- Lasaitu, nik lagunduko dizut, - esan zion untxiari. Zatoz nirekin, Nere etxera eramango zaitut.

Abiatu ziren bati etxerantz zein Rodolfo ezin izan zuen erosketarik egin. Iritsi ziren azkenean eta mutikoak, gose zela, esan zion untxiari.

Untxiak bere hozkailuan zeukan guztia eskaini zion haurrari. Hau harriturik geratu zen han zeuden janariak pastelak zirelako.

- Aizul! Zuk egunero pastelak jaten al dituzu?

- Ez, ezta pentsatu behar ere- erantzun zuen Rodolfo. Zurekin topatu naizenean erosketak egitera nindoan, porruak, patatak, ogia eta beste zenbait janari erosi behar nituen.

Eta haurrak honela esan zion:

- Baina untxiek ez dute hori jaten.

- Ah! Baina ni ez naiz beste untxiak bezalakoa, ni txiki berezia naiz eta horregatik zuek bezala jaten dut.

Dena dela hori ez da garrantzitsua. Neri oraintxe axola zaidana, zera da: nola eramango zaitudan etxera!

Haurra berriro negarrez hasi zen eta bere amarekin joan nahi zuela oihu egin zuen.

Rodolfo, haurra kontsolatu nahian zebilen eta pentsatu zuen ere onena herrira eramatea izango zela. Iritsi ziren ba herri txiki hartara. Janaridendan sartu ziren eta han lan egiten zuen neska gazteari galdetu zion untxiak:

- Egun on!, barkatu! ezagutzen al duzu mutil hau? Kalean aurkitu dut eta ez dakit non bizi den.

- Ba egia esan, ez dut ezagutzen.

Herri honetakoa da?

- Bai -esan zuen mutilak- Ander dut izena.

Galdere hauek egiten ari zirela, emakume adintsu bat sartu zen dendan. Nahiko triste zirudien, baina mutikoa ikusi zuenean aurregia bapatean alaitu zitzaion.

Anderren amona zen.

Amonak haurra hartu zuen, eskerrak eman zizkion Rodolfoari eta Ander malkoen artean ordu batzutan izandako lagun bereziari honela esan zion:

- Agur Rodolfo, ez zaitut inoiz ahaztuko!

Ahal dudanean joango naiz zure etxera bisitatxo bat egitera.

- Agur, ondo ibili, -erantzun zuen Rodolfo.

Eta hau esanik Rodolfok bere egunero-ko erosketak egin zituen, ondoren bere etxera abiatuz.

AMAIERA
3. eta 4. mailak

GURE PATIO TTIKIKO ZUHAITZAK

Udakenean hosto berde haundiz beterik zeuden zuhaitzak oraindik.

Neguaeren sarrera zen. Horma beltz, haitze gogor batek, kolpez bezala horitu zituen zuhaitzetako hosto guztiak.

Handik egun batzuetara goiz batean, eskolako leihak irekitzerakoan, zer harridura! zuhaitzen hosto erdiak lurrean ikustean.

Plaka, montoika, bata bestearen gainean. Elurra izango balitz bezala. Baina ez, ez zen elurra.

Goiz hartan jolastorduan ez genuen beste jolasik izan.

Besokadaka hartu eta motoi haundi bat egin. Gero bertan geure burua bota, bata bestearen atzetik.

Azkenean euria izango balitz bezala gora bota, beste bota...

Modu berean jolastu ginen hurrengo egun batzutan ere.

Orain udaberriaren aurrean gaudenez, seguru aski, hosto berrien iteera ez zaigu ustekabeen pasako. Hain gertaberria izan baita aurreko urteko hostoen erroketeta.

ESKOLAUURREKOAK



"HITZEZ HITZ" LEHIAKETA (6)

Bosgarren deialdian hiru asmatzaile izan ditugu: Alaitz Agirre, Iraitz Arruabarrena eta Itziar Mendizabal.

Hauek izan dira azalpenak eta adibideak:

1) MOKERTU

Zapuztu, muturtu, muzindu.

"Arittu duena ez dio gustatu eta moker-tu eginda", "haur honek lo gutxi egin din eta moker-moker egiña esnatu dun".

2) AUMENTATU

Aipatu, ahotan hartu.

"Askotan aumantatu dik hire izena", "nik esan diñatena, eyonela ifiori aumantatu".

3) BI DOMINO TOLL.

Bi otarre arrain.

DOMINO: Antxoak eta bestelako arrainak eramaitzeko erabiltzen zen otarre zabal-zabala.

TOLLA: Arrain handia eta luzea, ezkatagabea, azala kendu beharrekoa jango bada.

4) KANTTALA.

a) Ertza, izkina, kantua, kantoia. Harmaila batean, adibidez, edota, itsaspean, harroka plataforma bukatu eta ur handien sakona hasten den puntuan, e.a. (ikus gaztelaniaz *cantal* eta *canti*).


b) Ertz batek babesten duen txokoa.

c) Norbaiti edo zerbaiti dagokion txoko, zulo edo gune berexia.

"Konturi mahai horren kantalakin jo gabe", "harri kanttala jo dik", "barkua kantallian ibilki da legatzetan", "kala hau duk nere kanttala", "hau duk urte askuan nere kanttala perretxikutako (ehizerako, lanpernatako...)"

5) Argazkiko baserriaren izena, **SOLDADUNA** da.

Laugarrenean batek (I.A.) aipatu-rena eman ez digunez lau puntu izango ditu. Beste biek bosna.



Hurrengorako, bost hitz hauek ematen ditugu:

1) **erago** 2) **endana** 3) **sàski** (ez saski edo zestua) 4) **Jaski potorrúa**.

5) Argazkiaren ezker aldean arrantzaleek tresnak gordetzeko soto edo toki batzuk agertzen dira. Toki horiek oso izen eza-guna dute Hondarribian. Zein? Horrez gainera beste zerbait adierazteko ere erabiltzen da hitz hori?

Bidaltzeko epea apirilaren 8ra arte izango da.

Axola handikoa da hitzen esan-nahia ahalik eta zehatzenik ematea adibide egokiak ere bidaliz. Garbi dago zenbait hitzek erabilera eta adiera diferenteak dituztela Hondarribian bertan (**aroi** edo **kanttal**-en kasuan adibidez) eta ahal den neurrian aldaera guztiak jasotzea komeni da. Bestetik, hemen eskatzen duguna Hondarribiko erabilera da, ez hiztegiatan datorrena. Horretarako egokiena adineko jendearek galdetzea da eta adibideak ere beraier eskatzea, norberak hiztegiakoa ikusita esaldi artifizialak asmatzen ibili gabe. Horrek ez digu balio. Lehiaketa honen bidez bilatzen duguna Hondarribiko mintzairaren aleren batzuk paperean jasotzea da. Horregatik, behin eta berriz errepikatzen dugu norbait hemengo erantzunekin konforme ez badago edo mugatuegiak iruditzen bazaizkio, bere iritzia bidali dezala argitaratu dezagun. Pozik jasoko ditugu lehiaketa sartzeko hitzak ere, bestela berehalak agortuko zaizkigu xaien dauzkagun apurak.

Helbidea, orain artekoa:

"Hondarribia" aldizkaria
"Hitzez hitz" lehiaketa
Euskara Kontseilua
Udaletxea
20280 Hondarribia.



BIDAIA LUZEA

Hemezortzigarren mendean ateratzen ziren Britaniako portu batetik hiru mastako bela ontzi bat ikatzet turturka kargatua Txilera.

Cabo Verde arte joan zen ipar haize edo alisioekin 8 korapiloko abiadurarekin, handik Brasil aldera haize gutxi baina korrientearen lagintzarekin ondo xamar.

Egun batzuek igarota Argentinako hego aldera iritsi zenean han prestatu zuten ontzia, eguraldi txarren beldurrez, belak eskotak, mastak eta abar ondo begiratuaz, karga ere ondo gogortu eta; hurbiltzen ari bait ziren Hornos lur muturrera, itsas gizonen artean fama txarrekoa, beti eguraldi txar eta haize gogorrek lekua.

Kapitanak pentsatu bezala hara iritsi orduko jo zuten baxuko haizea (berrogeitamar bat korapilokoa), euria eta itsaso handia. Hori ikusiaz hego aldera joatea erabaki zuten, ezin zuelako lur mutur hura igaro eta ipar aldera jo.

Egunak eta egunak igaro eta eguraldiak ez zuten amorrik ematen eta beti hegoan barrena zihoan ontzia.

Horrela 29 egun. Halako batean lurra ikusi eta hara abiatu ziren. Leku on batera iritsi zirenean bertan molatu zuten bi aingulakin, Endana berean 48 orduko atsedena agindu zuten kapitanak, marinelak oso nekatuak zagozteko.

Hurrengo goizean ez sinisteko gauza. Bela ontzia jelaz inguratu zagon alde guztietatik ezin mugituri. Argi ikusi zuten denek negua han bertan igaro beharko zutela, eta kapitanak mastak eta bela guztiak kendu eta ondo gordetzeko agindua eman zuten, jelak eta elurak hondatu gabe.

Hotzaren beldurrik ez zeukaten ikatz nahikoa bai zutelako, eta bertan pinguino eta fokak baziren jateko.

Udaberria etorri zen eta jelak ez zen urtu. Udan jel pixkat urtu zen baina ez handik atetzeko hainbeste, eta horrela zazpi urte igaro zituzten!

Bitarte horretan heuren herrian galdutzat eman zuten bela ontzia bere jende guztiaekin.

Egin ziren elizkizunak, alargunek kobratu zuten heuren soldata eta jendeak ahaztu zuen gertakizun hura.

Egun batean kapitana erperatu zen jela zabaltu eta irribide bat gelditu zela ontzia atetzeko hainbeste. Azkar-azkar jendea iritu, belak igo eta zazpi urte igaro ondoren berri ere itsas zabalerara ateratzen zuten eta etxera abiatu zuzenean.

Britaniara iristerakoan hori poza marinel gizajo haiena, baina ez luzerako, ezkonduak etxera sartzerakoan beste gizon bat topatu zuten, heuren emazteak berri ezkondu zirelako, beste batzuen gurasoak hilak, eta seme-alabak altarik ezagutzen ez, ontziaren nagusiek ere seguroa kobratu ondoren berri ere seguro etxean ordaindu behar izan zioten eta gainera 7 urtetako soldata ordaindu marinelari.

Inor ez zagon konten gelditu, alaitasuna negar bihurtu zen eta horrela bukatu zen bidai luze hura.

Hilario Martinez

ARRANTZA



Eguraldi txarra izan dugun bitartean legazketariak etxean eman dituzte 15 egun arrantzara joan ahal izan gabe, otsailaren 2tik martxoaren 6a arte eta Benta geldirik egon da, beraz. Berritxo arrantzan hasi direnean legatz gutxi hatzeman dute, berdelaren kanpainari laster batez ekiteko asmoz beti ere, behon kanpaina hori eta baita antxoarena ere erregulatzeko akordioak hartu eta gero. Jarritako gutxieneko prezioak eta hatzematoko tonelariak honako hauek dira:

Sasiain hatzemandako berdela: 8.000 kilo

Amuz hatzemandako berdela: 400 kilo marinel bakoitzeko.

Arrain mota honetako jarritako gutxieneko prezioa 33. Ptakoa. da.

ANTXOAREN KOSTERA

Itsasontziek eginak dituzte dagoeneko haien konponketak eta egun batetik bestera itsasoratuko dira. Ofizialki kanpaina haur martxoaren 1ean hasi zen.

Arrain mota honi buruz hartutako akordioak hauek dira:

Kiloko 35 aleraino...225 Pta. Gutxieneko prezioa.

Kiloko 36/40 aleraino...180 Pta. gutxieneko prezioa.

Kiloko 41/45 aleraino...150 Pta. gutxieneko prezioa.

Kiloko 45/50 aleraino... 125 Pta. gutxieneko prezioa.


Kiloko 51/83 aleraino... 100 Pta. gutxieneko prezioa.

Neuri hauetako entzat, gehienez hatzeman daitekeen kopurua aurreko urtetakoa bezalakoa da, 6.000 kilo itsasontzi bakoitzak.

Izango al dugu kostera emankorra, eta ez al da normaltasunez burutzeko trabarik izango, hala nola, "sare pelagiko" fabrikatuak, edota itsasoaren egoera, azken hau dela eta arrantzaleak aski kezkatuak bait daude, azaro, abendu eta urtarrilean zehar guztiz eguraldi aproposa izan dutelarik, hori ez baita batera normala sasoin horretan, eta orain guztiz kontrakoa etorriko ote denez beldur direlarik.

Bestalde zenbait legazketarik belar bilketari ekin dio emaitza onak izanik. Honen zergatia gure itsasertza gogor eraso duten itsas kolpeak izan dira. Loturik zeuden itsa-

sontzien egoera ere kezkaigarri bihurtu zen, kai berriko Ipar Dikearen barnealdean batez ere, hori zela eta neurriak hartu eta, untzien sokak hautsiko ote ziren eta ezbeharren bat gertatuko ote zen beldurrez, hautan gau eta egun pasa behar izan zutelarik. Dena den esan behar Ipar Dikeak, ekaitz egun guzti hauetan zehar, kolpe gogor hantel eutsi eta arrantzuntziak ez ezik, "Club Nautico" an aingurata zeuden kirol untzi guztiei ere babesleku egokia eskaini diela.



LANPERNA BERO-BEROAK

Emakume arrainketariaren irudi xaloa, mugikera bizkor eta ahots zolikoa, aspalditxo galdu zen betiko.

Domino biribila gerriaz eta e ku batez eutsita, beren salgaiak, bizirik artean, eskaintzen zituzten saltzaile ibiltari haiek, hiriko kaleetan barrena, Irunera bidean askotan gehienetan segurtaturik bait zeukaten hango salmenta.

Urteko sasoi honetan, ordea, salgaia ez zen bizirik egoten, egosia, baizik eta bero samarra, zapi txuri batez maitekiro estalia, eta honen gainean zaku edo arpilera bat. "Laperna bero beroak" oihukatzen zuten oraingoan.

Erakarpen handia izaten zuen Hondarribiak Ostiral Santuko arratsalde, bi arrazoi-rengatik: prozesioaren edertasun plastikoa-gatik eta elizkizunaren ondoan Portuko jattetze guztietan ke jario serbitzen ziren lapernengatik.

Erliziozko arrazoi bikoitzak eragin zuen ohitura hau. Alde batetik, eliza katolikoaren egutegi liturgikoak ilargiaren arabera erabakitzen du Kristoren heriotzaren eguna. Hau dela eta, egun jakinean izan ohi den Jaiotzaren ospakizuna ez bezala, Pasio astea aldakorra izaten da. Honen ondorioz Ostiral Santuko itsasbeherak oso aroi bereziak izaten dira halako krustazeo eskoldunak



Laperna

hartzeko. Eta hauek ez doaz egunari dagozkion barau egin eta haragi uzteko legearen kontra.

Euskadiko beste leku batzutan barraskiloak janez egiten da bijilia. Guk, moko finagokoak izaki, gasteropodoak Gabonetarako utzita mariskoak dastatzen ditugu egun hauetan.

Lanpernak arrokei itsasita hazteak moluskoak zirela pentsarazi zuen oraintsu arte, ostrak edo muskuiluak bezala. Ikerketa sakonagoek, eskoldunen artean sailkatu zituzten.

Lanperna hemafrodita da, sexu aparailu izugarri luze baten bidez ernaltzen du eta dute, lanperna helduen eskizal artetik atera eta lagun hurbilenaren oskol erdi irekitik sartzen da, txorten hondoraino, espermatozoideak bertan ezarri. Ovulo ernaldue-tatik larbak jaiotzen dira, uretan libreki igeri dabilzanak, geroago hanka ttiki-ttiki batzuk izkutatzen dituzten bi oskol edo eskizalak sortzen zaizkie eta, azkenean, jario duten zemento antzeko baten bidez arroketan itsasi eta bertan hazten dira.

Askoren ustez, usteak oinarri zientifiko ahula badu ere, lanpernaren gustoa arroka-ren kalitatearen arabera izaten da. Gure artean gutxietsi egiten dira Miarriz ondoko harearroketan bildutakoak eta Higerreko kanttaletan hartutako "ezpain gorriko" "lanperna motza" gorai-patzen da. Horren funtsa areago egongo da laperna-kolonia itsasten den inguruko fauna eta landare-rian, horietaz bazkatzen bait da, harriaren osagai meniraletan baino.


Beste faktore garrantzitsu bat, olatu erasoan indarra da, mariskoa, gogor astintzen denean, trinko eta estu hazten bait da, ur geldian direnean, berriz, beraxka.

Luzaroan gordetzeko, ona izaten da txortena arroka puxka bati itsasita askatzea, horrela zenbait egunez luzatzen bait zaio bizia. Hala ere, ez da beharrezko arroka osoa etxera eramatea, Marruekostik datozkigun lanpernekin gertatzen den bezala. Zenbaitetan harritzarrek laperna mordoak baino pisu handiagoa izaten dute; esan liteke mairuen eskuetan dauden lurrak, garai batean Espainiaren koloniak izandakoak,

lanpernen atzetik garraiaturik erreku-peratu nahi ditugula.

Ematen zaien deitura ofiziala "Pollicipes cornucopia" da, latinezko "pollice" = behatz lodia eta "pede" = oin; eta grkozko "cornu" = adar eta "copia" = ugaritasuna. Alegia, bere hankak adar handi bat duen behatz lodi bat dirudiela. Estatuko beste leku batzutan "asto-hanka" eta "ahuntz-hanka" esaten zaio. Frantsesez "pouce pied" (hankako behatz lodia) eta iparraldean "l' operne". Ez ote dago fonetikaz antz handirik euskarazko lanperna eta l' operne-ren artean?

Diogun bukatzeko, itsasoak gure hondartzara botatzen dituen enbor eta oholei itsasita, oso laperna itxurako eskoldun zirripedo bat aurkitu dezakegula. Anatifa da (ez da jaten), txorten luze-estua eta bost kare-plakatako eskizalak dauzkana.



Anatifak edo sasi lanpernak (M. Ibañez).

Anatifak itsas hegaztien jaki dira, antzarak bezalako lepoluzeena batez ere; hala-koek, ur axaleko gauzetan kokaturik urpean sartzen dute burua anatifak jateko.

Diotenez, praile irlandar batzuek, kontenplatib oak eta estomaka onekoak, aha-teak, bapo jan eta gero, buruan eta gorputzak itsasotik aterata hegan hasten zirela ohartu ziren. Beren probetxutan, animalia hauek itsasotik sortuak zirela uste izan zuten, eta ez zirela haragizkoak, eta beraz, ondo erreka jangelan atera zitezkeela, haragi uzteko agindu zorrotza hausteko bel-durrik gabe.

Juan Jose Lapitz



POLIESTERREZKO LEHEN ARRANTZONTZIA HONDARRIBIAN EGINA

Otsailaren 10ean bota zuten uretara Euskal herrian egindako poliesterreko lehen baxura arraintontzia. Hondarrribian, hain zuten ere, Olaziregi anaien ontzi-lantegian, Mendelun.

Botadura ezin zitekeen edozein garaitan egin, itsasgora behar bait zen. Horregatik, momentu hau ikusi nahi zutenek agintariak barne, goiz samar ibili behar izan zuten, eta, hala ere, batzuk ikusi gabe gelditu ziren. Izan ere, itsasgoaren ordu ofiziala 7,30etan bazen ere, itsasoarena 7,5ean gertatu zen, eta, jakina han benetan agintzen zuena itsasoa zenez, botadura 25 minutuz aurreratu behar izan zen. Uretan sartutakoan 20 bat metro jaitsi zuten aireportu aldera eta han buelta emanik berriro gora eraman zuten ontzilantegiaren pareraino. Ontzileez gain, Eusko Jaurlaritza, Aldundia eta Udaleren ordezkariak ziren bertan eta ontzia lehenbizikoz bustitzen ikusi nahi zuen hainbat jende.

Ontziaren izena "Euskal herria" da eta ikur gisa lauburu bat darama brankan. Ihaki Arengo Elantxobeko armadorearen eskariz egindako ontzi hau, bukatutakoan, Bizkai aldera joango da, 3-BI-3127 matrikulaz. Guztira 110 edo 120 milioi gastatu dira eta bi hilabete igaro dira egin bitartean, hala ere, beste zazpi hilabete edo behar izan dira aurreko maiatzetik diseinaketan. Ondoko asteetan zubia eta motorrak jarriko dizkiote. Bitartean hor ikus dezakazue, Mendelun, Alkainen almenaren ondotik sartu eta erioan, itsasgora baldin bada kullun, eta, behean, alde batera okertutakoa, kopetaren erdian lauburu hori izaki erdi lo dagoen tartalo zirklope begibakar itsastarra dirudiela.

Ontzia 24 metro luze da eta 6,40 metro zabal; ohizko ontziak baino zabalagoa, beraz, duen zabalera 27 metroko ontziak izaten bait dute. Motorraren indarra, berrix, 600 zalditakoa. Baxurako ontzi hau berdel eta antxoara arrantzan nahiz atunetan erabili daiteke. Biberok edukitu ditzake eta 20.000 litro gasoil, 1.200 litro olio eta 3.000 litro ur ere eraman ditzake. Konparlamentuak erabat itxiak dira eta bat zulatuko balitz ura ez litzateke bestetara pasako. Tresna elektrotiko aurreratuenak edukiko ditu eta berrikuntzen artean maniobrak erraztuz alboetara mugitzeko daukan bi helizeak aipatu behar dira.

Dena den baxurako ontzi honek dakarren berrikuntza nagusia poliesterra da, % 100 poliesterra bait da. Zubia bera ere poliesterrekoa izango da, beste ontzietan aluminioz edo burdinaz egiten bada ere. Poliesterra egurra baino askoz ere iraunkorragoa omen da eta mantenimentua ere merkeagoa. Pintatu ere hemendik zazpi edo hamar urte barru egin beharko omen da berriro, ohizko itsasontziak urtean pare bat aldiz edo pintatu behar izaten direlarik. Olaziregi anaiak maite dute poliesterre lan egitea, molde berriak egitea lan delikatuak bada ere; egur-lana zikinagoa eta garestiagoa izaten da. Poliesterra Burgosen erosten dute.

Azken urteetan baxurako ontzigtintza gelditua zen eta berrikuntzak lehen egindako barkuetan egiten ziren. Orain arte itsasontziak egurrez edo burdinazkoak ziren eta 1973an edo hasi ziren inguru hauetan plastikoz eta antzekoez egiten. Hasiera ez zen errazegia gertatu, izan ere materiale hauek petroliotik sortzen dira eta urte haie-



tan hain zuten ere gertatu zen petrolioaren krisia munduan. Olaziregi anaiak, erramun eta Inazio, 1976an hasi ziren poliesterra erabiltzen baina baxurako ontzietan erabiligabea zen orain arte. Lehenak izan dira horretan Euskal herri osoan.

Olaziregitarren ontzigtintza 1942 urtean hasi zen. Harrezkero 700 bat motorra egin dituzte eta ia 40 baxurako ontzi. Ez ditugu beraz, ontzigtintza hasiberriak. Gerra ezkeretik orain arte lanbide horretan gertaturiko gora-behera guztiak ezagutu dituzte. Azken aurrerapena ere beraiek ekarri digute. Ginea Konakry, Frantziara, Galizia, Asturias eta Santanderra bidali izan dituzte beren ontziak. Olaziregitarren ustez poliesterra gero eta gehiago erabiliko da Euskal herrian, eta, normala denez, poliesterezaleagoak dira gazteak zaharrak baino. Jende asko adi-adi dago mola dabilen eginberri hau jakin gogoz. Dena den, hau bezalako bospasei barku eskatu omen dizkiete dagoeneko Nikaraguitik. Behin moldeak lortuz gero errazagoa da ontzi berriak egitea eta moldeak amortizatzeko hamar edo hamabi ontzi egin beharko dituzte.

